

Egoera ekonomikoa eta  
Merkatuak  
**ASTEKO LABURPENA**

2017ko uztailaren 31tik abuztuaren 4rako astea

---


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ ADI DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: EUROGUNEKO PMI KONPOSATUA



### Datuaren analisia


Euroguneko manufakturen sektorearen hazkunde erritmo sendoak moderazio arina erakutsi zuen hirugarren hiru hilekoaren hasieran. Manufakturen sektoreko azken PMIa 56.6ko mailara heldu zen uztailean eta 57.4koa izan zen ekainean (azken hau 74 hilabetetan lortutako gehienezko maila izan zen) eta aurretiko flash estimazioak emandako 56.8ko mailatik behera geratu zen. Frantzia bizkortu eta 6 urtetan lortu ez duen tasa azkarrenera iritsi zen, gainontzekoek aurreko hilabetean baino hedapen motelagoak erregistratu zituztelarik. Zerbitzuen sektorean, PMIak Eurogunean uztailean 55.4ko maila lortu zuen, aurretiko flash estimazioarekin alderatuz aldaketarik izan gabe. Hazkunde erritmoa ekainean izandako bost hiletako minimoa izan arren, azken 6 urteetako onenen artean egon zen eta Italia modu onean nabarmendu zen.

### Adierazlearen azalpena

**Manufakturazio/Zerbitzuen PMIa**, hileroko erosketari profesionalari eta enpresetako exekutiboari manufakturazio sektoreko egoerari buruz egindako inkesta batean oinarritzen da. Horrek fabrikazio/zerbitzuen sektorearekin alderatuta zer egoeratan dagoen neurtzeko balio du. Aurreratutako adierazle ekonomikoa da, hau da, beste adierazle batzuen etorkizuneko eboluzioari aurre hartzen laguntzen digu; esaterako, kasu honetan BPG. Lortutako datua 50 baino handiagoa bada, hedapen ekonomikoa adierazi nahi du; txikiagoa bada, aldiz, kontrakzioa adierazten du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### ERRESUMA BATUA: MANUFATURAZIO/ZERBITZUEN PMI ETA BOE



### Datuaren analisia

Manufaturazio PMIa uztailean suspertu egin zen zazpi hileko minimo batetik (ekainean, 55,1eko mailara igo zen eta berrikusitako azterketek 54,2ko maila aurreikusten zuten. Halere, 54,4ko maila gainditu zen). Zerbitzuetako PMIa uztailean 53,8ko mailara igo zen 53,4ko mailako ekaineko lau hileko minimotik, arin gaindituz ekonomilarien aurreikuspenak (53,6).

Kopuruek eta seinaleek bat egiten dute esatean Erresuma Batuko ekonomia indarra berreskuratzen ari dela, 2012az gozotik hasiera motelena izan ostean.

Ingalaterrako Bankuaren Bileran, erakundeak interes-tasak % 0,25ean mantendu zituen eta adierazi zuen tasak espero baino denbora gehiago mantenduko zirela maila horretan. Banku britainiarreko alderdi laxoenak indarra hartu zuen aurreko bilerarekin alderatuz.


### Adierazlearen azalpena

**Manufaturazio/Zerbitzuen PMIa**, hileroko erosketaren profesionalen eta enpresetako exekutiboekin manufaturazio sektoreko egoerari buruz egindako inkesta batean oinarritzen da. Horrek fabrikazio/zerbitzuen sektorearekin alderatuta zer egoeratan dagoen neurtzeko balio du. Lortutako datua 50 baino handiagoa bada, hedapen ekonomikoa adierazi nahi du; txikiagoa bada, aldiz, kontrakzioa adierazten du.

**Ingalaterrako Bankua (BoE)** Erresuma Batuko banku zentrala da. Diru-politikarako Komitearen bitartez herrialdearen diru-politika erabakitzeaz arduratzen da. Erresuma Batuko Gobernuaren Banku Zentralaren antzera egiten du lan eta besteren artean bere zeregina libera esterlinaren zirkulazioa igorri eta kontrolatzea da.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ISM ETA LAN TXOSTENA



### Datuaren analisia

Manufakturen ISM indizea uztailen jaitsi egin zen 56,3ko mailara ekaineko 57,8ko mailatik. Horrela, ez zituen lortu merkatuaren 56,4ko mailako estimazioak, nahiz eta datu sendoa izan. Manufakturena ez den ISM indizeak beherakada harrigarria jasan zuen, adierazlea 53.9ko mailara jaitsi baitzen. 56.9ko maila aurreikusten zen eta aurreko hileko emaitza 57.4ko maila izan zen. ISM indizearen irakurketa 11 hileetako baxuena izan zen.

Uztailiko Lanaren Txosten Ofizialaren arabera, langabezia tasa dezima bat murriztu zen, % 4,3ko mailara jaitsiz eta 16 urteko minimoetara iritsi da. 209.000 lanpostu berri sortu ziren, analista gehienek aurreikusitako 180.000 lanpostuak gaindituz; lan merkatu estatubatuarra babesten duen adierazle baikorra da datu hori.



### Adierazlearen azalpena

**Manufakturazio/Zerbitzuen PMIa**, fabrikazio/zerbitzuen sektorearekin alderatuta zer egoeratan dagoen neurtzeko balio du. Aurreratutako adierazle ekonomikoa da, hau da, beste adierazle batzuen etorkizuneko eboluzioari aurre hartzen laguntzen digu; esaterako, kasu honetan BPG. Lortutako datua 50 baino handiagoa bada, hedapen ekonomikoa adierazi nahi du; txikiagoa bada, aldiz, kontrakzioa adierazten du.

**Lan txostena**, lan merkatu estatubatuarraren egoerari buruzko txosten osoa da eta hainbat datu ditu, besteak beste lan sorrera (nekazaritzako sektorea alde batera utziz), langabezia tasa eta soldaten eboluzioa. Txosten horrek ekonomia estatubatuarraren jardueraren inguruko pronostiko bat egitea baimentzen du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### ASIA: MANUFATURAZIO ETA ZERBITZUETAKO PMIa



### Datuaren analisia

Japonian, uztailako manufaturazioko PMIak huts egin zuen aurreikusitako estimazioaren azpitik (52,2) geratu baita, 52,1eko mailan. Aurreko hilekoa baino txikiagoa izateaz gain (52,4) 8 hileko minimo bat ezartzen du, kanpoko eskariaren dezelerazioaren ondorioz hein handi batean, nahiz eta oraindik hedapen eremuan mantentzen den. Zerbitzuen sektoreak uztailan izandako hazkundera aurreko hilekoa baino txikiagoa izan da (52 vs 53.3 ekainean).

Txinan, Caixin manufaturazioko PMIak 4 hileko maximoa lortu zuen, analisten aurreikuspenak gaindituz eta uztailan bizkortu egin zen 51,1eko mailara iritsi arte, ekaineko 50,4ko mailatik. Zerbitzuen Caixin sektorea uztailan erritmo baxuagoan hazi zen. Adierazlea 51,5eko mailara jaitsi zen uztailan eta ekainean 51,6ko maila izan zuen.

### Adierazlearen azalpena

**Manufaturazio/Zerbitzuen PMIa**, hileroko erorketa profesionaleri eta enpresetako exekutiboei manufaturazio sektoreko egoerari buruz egindako inkesta batean oinarritzen da. Horrek fabrikazio/zerbitzuen sektorearekin alderatuta zer egoeratan dagoen neurtzeko balio du. Aurreratutako adierazle ekonomikoa da, hau da, beste adierazle batzuen etorkizuneko eboluzioari aurre hartzen laguntzen digu; esaterako, BPG kasu honetan. Lortutako datua 50 baino handiagoa bada, hedapen ekonomikoa adierazi nahi du; txikiagoa bada, aldiz, kontrakzioa adierazten du.

## ADI DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazl ea	Aurreiku spena
08/07	Alemania	WDA urtetik urterako Ekoizpen industrialia	--
08/07	Eurogunea	Sentix inbertitzailearen konfiantza	--
08/08	Japonia	BoP oinarrizko balantza komertziala	¥549.0b
08/08	Alemania	Balantza komertziala	--
08/08	Frantzia	Balantza komertziala	--
08/08	Txina	Balantza komertziala	\$45.20b
08/09	Txina	Urtetik urterako KPIa	% 1.5
08/09	Frantzia	Bank of France Ind. Sentiment	--
08/09	AEB	MBA Hipoteken eskaria	--
08/10	Japonia	Urtetik urterako ekoizpen prezioen indizea	% 2.3
08/10	Frantzia	Urtetik urterako ekoizpen industrialia	--
08/10	Erresuma Batua	Urtetik urterako ekoizpen industrialia	% -0.3
08/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	--
08/10	Erresuma Batua	NIESR BPGren estimazioa	--
08/10	AEB	Hasierako langabezia eskaerak	--
08/11	Alemania	Urtetik urterako KPIa	--
08/11	Frantzia	Urtetik urterako KPIa	--
08/11	Espainia	Urtetik urterako KPIa	--
08/11	AEB	Urtetik urterako KPIa	% 1.8

## BURTSAK:

Hegakortasuna izan arren, balantze positiboa izan da munduko Burtza nagusietan, Nasdaqen kasuan izan ezik, beherakada izan baitzuen eta Nikkeik modu lauan amaitu zuen. Inguru makroan, Eurogunearen zifrek bere ekonomia-aren eboluzio zuzena berretsi zuten, bigarren hiru hilekoan % 0,6ko hazkundera lortuz, eta ezagunak diren adierazleak jarraipena erakutsi zuten etorkizun hurbilera begira. Lanaren AEBetako txostenaren emaitza onak indize europarrak ere babestu zituzten. Hala ere, eurotik eratorritako presioek errenta aldakorrean mozkin handiagoak lortzea eragotzi zuten. Erresuma Batuan, BoEek herrialdearen hazkunderaren estimazioak beherakadan bazituen ere, Londreseko Burtza, liberaren balio-galerak bultzatuta, maximo historikoetara iritsi zen. AEBetan, bere indizeen ibilbidea moderatuagoa izan den arren, Dow Jonesek maximo historikoak lortu zituen jarraian egindako 8 saioetan, emaitza onak lortuz eta Applen diru-sarreraren aurreikuspenen hobekuntza nabarmenduz. Azkenik, Europako konpainia handien emaitzak nabarmendu ziren (argitaratutako Stoxx 600en % 71, % 58an aurreikuspenak gaindituz eta % 13ko hobarrien urtetik urterako hazkundera lortuz)

INDIZEAK	PREZIOA	%Asteko aldaketa	%Ald 2017
MSCI WORLD (Eur)	170,99	0,34	0,85
IBEX 35	10.658,40	1,16	13,97
DJ EURO STOXX 50	3.507,41	1,14	6,59
DJ STOXX 50	3.122,32	1,15	3,71
FTSE	7.511,71	1,95	5,16
S&P 500	2.476,83	0,19	10,63
Dow Jones	22.092,81	1,20	11,79
NASDAQ	6.351,56	-0,36	17,99
NIKKEI 225	19.952,33	-0,04	4,38
MSCI EMERGENTES (Eu)	356,70	0,36	11,09
MEXBOL	51.328,29	0,22	12,46
BOVESPA	66.897,98	2,14	11,08
SHANGHAI	3.416,35	0,27	5,13
Rusia Rts Moscú	1.026,73	1,21	-10,90

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,69	-0,01	0,08
ESPAINIA 2 URTE	-0,32	-0,03	-0,04
AEB 2 URTE	1,35	0,00	0,16
ALEMANIA 10 URTE	0,47	-0,07	0,26
ESPAINIA 10 URTE	1,48	-0,04	0,10
AEB 10 URTE	2,26	-0,03	-0,18
ALEMANIA 30 URTE	1,22	-0,10	0,27
ESPAINIA 30 URTE	2,78	-0,08	0,16
AEB 30 URTE	2,84	-0,05	-0,22
<b>Kreditu spreada (ob)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	51,69	-0,53	-20,35
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	231,14	-3,62	-57,56

## ERRENTA FINKOA:

Egonkortasun handiagoarekin, erosketak nagusitu ziren mundu mailan, bai "core" aktiboetan zein periferiako ekonomietan ere. Aldaketa eskasa kredituaren merkatuan. Nabarmentzekoa da Ingalaterrako Bankuaren Bilera, zeinean erakundeak interes-tasak % 0,25ean mantendu zituen eta esperotako denbora baino gehiago mantenduko direla adierazi zuen. Soilik zortzi kontseilarietatik bik, ekainetik bat gutxiago, eman zuten aldeko botoa interes-tasak igotzeko. Modu horretan, banku britainiarraren alderdi laxoenak indarra hartu zuen azkeneko bileraz geroztik.

## DIBISAK/ LEHENGAIK:

Banku ingelesaren bileraren ostean, dibisa britainiarrak balioa galdu zuen eta euroak lehenengo aldiz bederatzi hiletan gainditu egin du 90 pennyko langa. Dibisa europearra bi urte eta erdiko maximoan mantendu da dolarraren eta franko suitzarraren aurrean. Inflazio zifren euspenak ez ditu hoztu EBZren politiken aldaketen inguruko aurreikuspenak. Halere, FEDren joera zalantzagarriagoa da, Trumpen hauteskunde promesen bideragarritasuna ezbaian jarri ostean. Dolarraren ahultasunak inbertitzaileen errearekiko interesa mantentzen du eta bere prezioak behera egin du % -0,86. Hegakortasuna petrolio gordinaren prezioan, nahiz eta egonkor itxi zuen saioa (% +0,46), kupeleko 50\$ gainditu zituelarik.

<i>Dibisak</i>	<i>Maila</i>	<i>%Aldaketa Astean</i>	<i>%Ald 2017</i>
Dolarra / Euro	1,18	0,18	11,90
Yena / Euro	130,31	0,22	5,94
Libera/ Euro	0,90	0,91	5,78

<i>Lehengaiak</i>	<i>Maila</i>	<i>%Aldaketa Astean</i>	<i>% Ald 2017</i>
Petrolio (Brendt)	51,90	0,46	-6,33
Urrea	1.258,77	-0,86	9,24



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sor ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat, ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau informazioa besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.